

87/2021 FORU AGINDUA, irailaren 28koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, zeinaren bidez prozedura hasten baita foru dekretu baten proiektua prestatzeko. Foru dekretu horren bidez, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako irakaskuntzen curriculuma ezarriko da.

2020ko abenduaren 30ean, BOEn argitaratu zen 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena. Besteak beste, aldaketa garrantzitsuak gertatu dira hezkuntzako etapetako curriculum egituretan, hain zuzen etapa hauetan: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa.

Gobernuak, kasuan kasuko errege dekretuen bidez (gaur egun tramitatzen ari dira), antolamendua eta gutxieneko irakaskuntzak ezarriko ditu, lehen aipatutako etapa bakoitzerako.

Hezkuntza administrazioek dira beren lurralde eremuan dagokien curriculuma ezartzeko arduradunak; horren parte izanen dira curriculumari buruzko errege dekretuetan ezarritako oinarrizko alderdiak, kontuan hartuta horiek hartuko dutela eskola ordutegien ehuneko 50 hizkuntza koofiziala duten autonomia erkidegoetan, eta ehuneko 60 halakorik ez dutenenetan.

Bete ahal izateko abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa ezartzeko egutegia beharrezkoa da Hezkuntza Departamentuak tramitatzen hastea -Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak curriculumari buruzko errege dekretuak tramitatzen ari denean- Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako irakaskuntzen curriculuma ezarriko duen foru dekretuaren proiektua egiteko prozedura.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41.1 artikuluan ematen zaizkidan ahalmenak erabiliz,

AGINTZEN DUT:

1. Aldez aurreko jendaurreko kontsulta hastea, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako irakaskuntzetarako curriculuma ezartzen duen foru dekretuari buruzko proiekturako.

2. Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzua izendatzea espediente hau prestatu eta tramitatzeko organo arduradun.

3. Foru agindu hau igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan, Hezkuntza Zuzendaritza Nagusira, Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusira, Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzura.

Iruñean, 2021eko irailaren 28an.- Hezkuntzako Kontseilaria, Carlos Gimeno Gurpegui.